

Epilepsiadun emakume bat naiz eta momentu honetan haurdun nago. Baina zoritxarrez pandemia hasi zenetik bi aborto pasatu ditut, lehenengoan ez nuen ia arretarik jaso baina oso goiztiarra izan zen eta beno, nahiko ondo gainditu nuen. Baina bigarrenean ia ia 12 asteko nengoenean barruan neramana hil egin zen eta pastillekin abortatu behar izan nuen. Baina gogorrena berri txar hori bakarrik jasotzea izan zen, ia haurdun nengoela jakin nuenetik hasi bainintzen odol galtzeekin eta reposoan egon behar izan nuen "amenaza de aborto" izaten ari nintzelako. Ia astero joaten nintzen ginekologoarengana ta bagenekien edozein momentutan jaso nezakeela nahi ez genuen berri txar hori, hala ere, bakarrik sartu behar izaten nintzen kontsultara guztiok bezala eta horren ondorioz nire bizitzako albisterik gogorrenetarikoa bakarrik jaso behar izan nuen.

Bikoteak eta biok eskatzen genuen mesedez egoera berezia zela eta uzteko berari ere sartzen, espero genuelako azkenean zoritxarrez gertatu zena eta nahiz eta ni astero negarrez sartu kontsultara ezezkoa jasotzen genuen beti. Esan zidaten epilepsiarako hartzen dudan medikazioaren ondorioa izan zitekeela baina 3. abortorarte ez zirela bestelako probak egiten.

Zorionez azkar lortu genuen berriro haurdun geratzea, baina pasatutakoaren ostean oso ikaratuta geunden eta lehenengo ekografiara batera joatea erabaki genuen, pasatutakoaren ostean oraingoan, lehenengoan behintzat, bikoteari ere sartzen utziko ziotenaren esperantzarekin. Baina ez, eta ez bakarrik ez ziotela utzi sartzen, ambulategian, itxaron gelan ezin zitekeela egon esan zioten! Orduen berriro bizi behar izan nuen momentu gogor hura, ekografia bat egiten nengoen berri txar hori berriro eta bakarrik jasotzearen beldurrez, izugarritzko ikaraz.

Zorionez, oraingoan dena ondo doa, baina epilepsia dela eta haurdunaldi arriskutsua da eta hainbat arrisku ditut, nik eta baita nire barruan daramadan umeak ere, horregatik hainbat proba berezi egiten ari zaizkit, baina guztietan ni bakarrik, berri txarren bat jasotzearen beldurrez beti. Hain berezia izan behar duen etapa hau ez naiz ari batera gozatzen, eta nire moduan haurdun dauen emakume guztiak.

Ez da batere justua, nire kasuan bizi naizen pertsonarekin sartuko nintzatekelako kontsultan, hartu beharreko neurrie guztiekin, noski. Baina ez, hori ezin dezakegu egin, baina ospitalera autobus batean joan behar naiz, jente ezezagunez inguratuta, nire bikoteak ezin didanez kontsultara lagundu ez diotelako justifikanterik egiten gainera eta 15 egunero edo hilero joan behar dut. Nola ulertu daiteke hori? Ze zentsu dauka? Eta zoritxarrez nire egoera ez da ezer beste emakume askok bizi behar izan dutenarekin alderatuta, zuk aipatutako kasuetatik pasatu direnak adibidez.

Eskerririk asko berriro ere.